
EUSKADIKO EGEF PROGRAMA 2021-2027

ERAGIKETAK HAUTATZEA

Bitarteko erakundea

Bizkaiko Foru Aldundia

Agiri honek 2021-2027 denboraldirako Euskadiko EGEF Programaren esparruan eragiketak aukeratzeko Bizkaiko Foru Aldundiak, bitarteko erakunde gisa, aplikatuko duen prozedura du. Helburua da 2021-2027 denboraldian EGEF funtsen finantzaketa jasotzea.

Euskadiko EGEF Programa 2021-2027

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak Euskal Autonomia Erkidegoaren estrategia jasotzen du, Europar Batasunaren laguntzarekin gizarte-, ekonomia- eta lurralde-koheretza sustatzeko. Programa honek 2021-2027 programazio-denboraldian Eskualde Garapeneko Europako Funtsekin (EGEF) kofinantzatuko diren jarduketak zehazten ditu.

Egiturak 2 helburu politiko eta 7 helburu espezifiko ditu. Aurrekontu osoa EGEF laguntzaren 165.679.269 eurokoa da, beraz, guztira 414.198.173 euro baino gehiago inbertituko dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak bi helburu politikoetan parte hartzen du, helburu espezifikoetako 4tan sartutako proiektuen bidez. Hala, programaren aurrekontu osoaren % 38 kontzentratzen du.

1. Helburu Politikoa. Europa adimentsuagoa, berrikuntzaren, digitalizazioaren, eraldaketa ekonomikoaren eta enpresa txiki eta ertainei emandako laguntzaren bidez.

HE1.2. Digitalizazioak herritarrei, enpresei, ikerketa-erakundeei eta administrazio publikoei eskaintzen dizkien abantailak aprobetxatzea. Helburu espezifiko horretan, BFAk zerbitzu publikoak eta administrazio elektronikoa digitalizatzeko jarduerak garatuko ditu. Horretarako, EGEF funtsaren 5,6 milioi euroko laguntza izango du, 13,9 milioi euroko inbertsioa ahalbidetuko duena.

2. Helburu Politikoa. Europa ekologikoagoa eta karbonorik gabea, Parisko Akordioa aplikatuko duena eta trantsizio energetikoan, energia berriztagarrietan eta klima-alaketaren aurkako borrokan inbertituko duena.

HE2.4. Klima-alaketara egokitzen laguntzea eta hondamendien arriskua prebenitzea, baita erresilientzia sustatzea ere, ekosistemetan oinarritutako ikuspegiak kontuan hartuta. BFAk planteatzen dituen jarduerak baso-suteen prebentzioan oinarrituko dira, klima-alaketaren ondoriozko arriskuak egokitzeko. Bizkaia 4,4 milioi euroko EGEF laguntza izango du jarduerak horiek garatzeko, eta, horri esker, 11,1 milioi euroko inbertsioa egingo da guztira.

HE2.7. Natura, biodibertsitate eta azpiegitura berdeen babesa eta kontserbazioa areagotzea, baita hiriguneetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea. Helburu espezifiko horren barnean, Bizkaiko mendiak kontserbatzeko eta lehengoratzeko jarduerak sustatuko dira, bertako espezieak berreskuratzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak 3,4 milioi euroko laguntza izango du EGEF funtsetik, eta, horri esker, 8,4 milioi euroko inbertsioa egingo da guztira.

HE2.8. Hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea, karbono-isuri garbien zero maila duen ekonomia baterako trantsizioaren zati gisa. BFAk mugikortasun iraunkorra sustatuko du lurralde osoan, herritarren konektibitatea erraztuko duten bizikleta-bideak garatuz. Bizkaia 10,7 milioi euroko EGEF

laguntza izango du jarduera horiek garatzeko, eta, horri esker, 26,8 milioi euroko inbertsioa egingo da guztira.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak, bitarteko erakunde gisa, Funtsak Kudeatzeko Zerbitzuaren bidez, Programaren esparruan Bizkaiko Lurralde Historikoan, programaren helburu espezifiko desberdinekin lotutako arloetan, kofinantzatu behar diren eragiketak hautatu behar ditu.

Bitarteko erakundeak BFaren webgunean argitaratu ostean, balizko eragiketak aurkezteko eskatu du. Ildo horri eutsiz, Bizkaiko erakunde eskudunek finantzaketa-eskaera osatu behar dute, gerora, kofinantzatzeko proposatutako eragiketak aukera daitezten, betiere prozesua arautzen duen araudia betetzen dela bermatuta.

ERAGIKETAK HAUTATZEKO METODOLOGIA

Eragiketak **interes-adierazpenen deialdiak** antolatuz hautatuko dira. Hautaketa-metodo hau politika publiko eskusiboen eremu jakin batean (Bizkaiko Foru Aldundiko sailak eta BFari atxikitako erakunde edo entitate publikoak) eskumena duten erakunde edo entitate publikoek zuzenean garatutako jardueretarako erabiltzen da.

Hautaketa-metodoa “bitarteko erakunde gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren eginkizunen eta prozeduren deskribapena” atalean zehatzago deskribatzen da.

Eragiketa horiek eragiketak hautatzeko irizpideekin eta prozedurekin bat etorritik hautatuko dira. Agirian daude hautatu eta Programaren finantzaketa-eremuetan sartzeko ezinbestez bete behar diren irizpideak.

Horrez gain, proiektu batzuen gainean beste batzuei lehentasuna emateko irizpideak zehazten dira. Hortaz, proiektuak hautatzeko kontuan hartuko dira, modu horretan programaren estrategiara eta helburu espezifikoetara egokitzen direla bermatuko baita.

Interes-adierazpenen bitartez eragiketak hautatze aldera, deialdi irekiak antolatuko dira, balorazio-irizpideen arabera, kalitate handia ziurtatuko duten kalifikaziora iristen diren eragiketak hautatzeari begira. Hala jardungo da esleitu behar den zenbatekoa bukatu arte.

Ildo horretatik, finantzaketa-eskaerak jasotzen diren neurrian, bitarteko erakundeak kofinantzatzeko eragiketa-proposamenak haiek hautatzeko irizpideen arabera ebaluatu eta EGEF Programan txertatzeko proiektuaren hautagarritasuna nahiz proiektu horren lehentasun-maila zehaztuko ditu.

ERAGIKETAK HAUTATZEKO PROZEDURA

Eragiketak hautatze aldera, bitarteko erakundeak finantzaketa-eskaerak hartu eta baloratzeko prozedura definitu du.

- 1. Erakunde interesdunen finantzaketa-eskaerak.** Erakunde interesdunek Funtsak Kudeatzeko Zerbitzuari proiektu bakoitzeko finantzaketa-eskaeraren fitxa bana bidaliko diote eta hari buruzko informazioa eta/edo dokumentazioa aurkeztuko dute, hala badagokio, kontratazio publikoari buruzko informazioa eta proiektua baloratzeko garrantzitsutzat jotzen duten bestelako edozein informazio barne.
Bitarteko erakundeak erakunde interesdunei aholkuak emango dizkie finantzaketa-eskaera betetzeko.
- 2. Finantzaketa-eskaerak hartu eta erregistratzea.** Bitarteko erakundeak finantzaketa-eskaerak erregistratuko ditu, Programan parte hartu nahi duten erakunde interesdunek bidali ostean.
- 3. Jaso diren finantzaketa-eskaerak aztertzea.** Bitarteko erakundeak hautagarritasun- eta lehentasun-irizpideei erreparatuz finantzaketa-eskaerak aztertuko ditu. Eskaerak puntuak emanda baloratuko dira, eta lehentasunak ezarriko dira. Ildo horri jarraikiz, Programan sartu ahal izateko 100en gainean 70 puntutik gora lortzen dituzten eragiketak baino ez dira kontuan hartuko. Gainera, eragiketa horiek puntu-hurrenkeraren arabera hautatuko dira funts eskuragarriak bukatu arte.
- 4. Finantzaketa-eskaerak onartu edo ezestea.** Finantzaketa-eskaerak aztertu ondoren, bitarteko erakundeak eragiketaren onespén-jakinazpena bidaliko dio dagokion erakundeari “EGEF laguntzaren baldintzak definitzen dituen agiriarekin” batera (DECA).
Finantzaketa-eskaera onartzen ez bada, bitarteko erakundeak erakunde proposamen-egileari jakinarazpen bat bidaliko dio ezetsi dela adierazteko eta ezestearen arrazoiak azaltzeko.

ERAGIKETAK HAUTATZEKO HAUTAGARRITASUN- ETA LEHENTASUN-IRIZPIDEAK

Eragiketak hautaketa-irizpideetan oinarrituta aukeratuko dira. Haiek zehaztuko dituzte garatzeko orduan lehentasun estrategikoa eta EGEF Programaren jarduketa-ildoekin proiektuaren egokitasun-maila.

Aurrekoaren harira, helburu espezifiko mota bakoitzerako proiektuen balorazio-irizpideak definitu dira. Balorazio-irizpideak honako hauek dira:

HE1.2. Digitalizazioak herritarrei, enpresei, ikerketa-erakundeei eta administrazio publikoei eskaintzen dizkien abantailak aprobetxatzea.

- **Proiektuaren heldutasun-maila.** Proiektuek heldutasun-maila nahikoa izango dute (aurrekontu-zuzkidurari, proiektuari, izapideei edo/eta gauzatze-mailari... buruz) 2029. urtea amaitu baino lehen egikaritzeko. Lehentasuna emango zaie lehenago hasten diren jarduketei, beranduago planifikatuta daudenen aldean. Horrez gain, "N+3 araua" izenekoak bete ahalko da (Xedapen Erkideei buruzko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 105. art.).
- **Proiektuaren kostua.** Proiektuen inbertsio-maila baloratuko da, eta, bide horretatik, lehentasuna emango zaie zenbateko handiena dutenei.
- **Zerbitzu publikoen eraginkortasuna, efizientzia eta kalitatea hobetzea.** Lehentasuna emango zaie teknologiaren bidez zerbitzu publikoak ematean kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen duten eragiketei, bai eta balio erantsi handiena eskaintzen dutenei ere, baldin eta (1) administrazio-prozedurak eta -prozesuak automatizatzen badituzte, (2) e-Administrazioaren zerbitzuak areagotu eta errazten badituzte eta (3) herritarrei nahiz enpresei administrazio-kargak murrizten badizkiete.
- **Herritarrengan inpaktu handiagoa.** Lehentasuna emango zaie estrategiaren ikuspegitik herritarrengan ondore garrantzitsuagoa duten eragiketei, onuradun diren erabiltzaileen kopurua kontuan hartuta.

HE2.4. Klima-aldaketara egokitzen laguntzea eta hondamendien arriskua prebenitzea, baita erresilientzia sustatzea ere, ekosistemetan oinarritutako ikuspegiak kontuan hartuta.

- **Proiektuaren heldutasun-maila.** Proiektuek heldutasun-maila nahikoa izango dute (aurrekontu-zuzkidurari, proiektuari, izapideei edo/eta gauzatze-mailari... buruz) 2029. urtea amaitu baino lehen egikaritzeko. Lehentasuna emango zaie lehenago hasten diren jarduketei, beranduago planifikatuta daudenen aldean. Horrez gain, "N+3 araua" izenekoak bete ahalko da (Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 105. art.).
- **Proiektuaren kostua.** Proiektuen inbertsio-maila baloratuko da, eta, bide horretatik, lehentasuna emango zaie zenbateko handiena dutenei.
- **Baso-suteak izateko arrisku handieneko eremuak.** Lehentasuna emango zaie baso-suteak izateko arrisku handieneko jarduketa-eremuei.

- **Planteatutako azpiegitura berdeen lurralde babestua estaltzea.** Lehenetasuna emango zaie planteatutako azpiegitura berdeen lurralde babestua gehien estaltzen duten jarduketei.

HE2.7. Natura, biodibertsitate eta azpiegitura berdeen babesa eta kontserbazioa areagotzea, baita hiriguneetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.

- **Proiektuaren heldutasun-maila.** Proiektuek heldutasun-maila nahikoa izango dute (aurrekontu-zuzkidurari, proiektuari, izapideei edo/eta gauzatze-mailari... buruz) 2029. urtea amaitu baino lehen egikaritzeko. Lehenetasuna emango zaie lehenago hasten diren jarduketei, beranduago planifikatuta daudenen aldean. Horrez gain, "N+3 araua" izenekoak bete ahalko da (Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 105. art.).
- **Proiektuaren kostua.** Proiektuen inbertsio-maila baloratuko da, eta, bide horretatik, lehenetasuna emango zaie zenbateko handiena dutenei.
- **Naturagune eta ekosistema babestuetan inpaktu handiena.** Lehenetasuna emango zaie estrategiaren ikuspegitik naturagune eta ekosistema babestuetan ondore eta inpaktu handieneko jarduketei, betiere biodibertsitatea hobetzeko badira.

HE2.8. Hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea, karbono-isuri garbien zero maila duen ekonomia baterako trantsizioaren zati gisa.

- **Proiektuaren heldutasun-maila.** Proiektuek heldutasun-maila nahikoa izango dute (aurrekontu-zuzkidurari, proiektuari, izapideei edo/eta gauzatze-mailari... buruz) 2029. urtea amaitu baino lehen egikaritzeko. Lehenetasuna emango zaie lehenago hasten diren jarduketei, beranduago planifikatuta daudenen aldean. Horrez gain, "N+3 araua" izenekoak bete ahalko da (Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 105. art.).
- **Proiektuaren kostua.** Proiektuen inbertsio-maila baloratuko da, eta, bide horretatik, lehenetasuna emango zaie zenbateko handiena dutenei.
- **Lurraldearen eta herritarren konektagarritasun handiagoa.** Lehenetasuna emango zaie lurralde konektatuagoa lortzen laguntzen duten jarduketei, bai eta herritarrek eskatzen dituzten zentro eragile eta sortzaile nagusien artean konektagarritasun handiena eragiten dutenei ere. Besteak beste, honako hauek baloratuko dira:
 1. Erabiltzaileak gune metropolitarrak, lan-zentroetara, enpresa-eremuetara... hurbiltzen dituzten jarduketak.
 2. Erabiltzaileak hiri-garrantzi handiko funtzio eta zerbitzu gehien duten eremuetara hurbiltzeko jarduketak (intermodalitatea, osasuna, hezkuntza...).
- **Ingurumen-inpaktua edo -hobekuntza.** Baloratuko da proiektuek esperotako ingurumen-inpaktuen estimazioa kontuan hartzea, hala nola BEGen murrizte-maila.

ERAGIKETAK HAUTATZEKO ARAUZKO BETEBEHARRAK

EGEF programarekin kofinantzatzeko proiektu-proposamena aurkeztu nahi duten erakunde interesdunek kontuan hartu beharko dute arauzko zenbait betebeharrak daudela eta nahitaez bete beharko dituztela eragiketak hautatu eta egikaritzeko.

- Arloan aplikaziokoak diren erkidegoko, nazioko eta eskualdeko arauekin bat eragiketak egikaritzea eta honako hauek ziurtatzea: konfinantzazioa jaso duten jarduketak gauzatu direla, aitortu den gastua egin dela eta gastuak erkidegoko eta nazioko arau aplikagarriek xedatutakoa bete duela, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 74.1.a) artikulua xedatutakoaren arabera.
- DECAri jarraikiz, diruz lagundutako finantzaketa-plana eta egikaritze-egutegia betetzea, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 73.3 artikulua arabera.
- Kofinantzatu behar den gastua diruz laguntzeko aldia ezagutzea. Benetan ordainduta egongo da 2021/1/1etik 2029/12/31ra bitartean, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 63.2 artikulua arabera.
- Eragiketen bidez azpiegiturretan edo produkzioaren arloan inbertsioak egin behar badira, iraunkortasun finantzarioa bermatze aldera, funtzionamenduaren eta mantentze-lanen kostuak estaltzeko baliabide eta mekanismo finantzarioak izatea, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 73.2.d) artikulua arabera.
- Eragiketarekin zerikusia duten transakzio guztien kasuan, kontabilitate-erregistro independenteak izatea edo kontabilitate-kode egokiak erabiltzea, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 74.1.a) i) artikulua arabera.
- Hautematen diren arriskuak aintzat hartuta, kudeaketaren eremuan iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta neurrizkoak aplikatzea, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 74.1.c) artikulua arabera. Ildo horri eutsiz, funtzioen eta prozeduren deskribapenean bitarteko erakundeak ezartzen dituen gidalerroen babesean, onuradunak honako hauek bete beharko ditu:
 - Jarduketaren eremuan iruzur-arriskua autoebaluatzea.
 - Kontratazio-prozesuetan interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) inplementatzea.
 - Kontratazio-prozesuetan bandera gorrien zerrendak inplementatzea.
- EGEFaren informazioari eta jakinarazpenari dagokionez, arauzko eskakizunak betetzea, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 50. artikulua eta IX. eranskinaren arabera.
- Kudeatu, jarraitu, ebaluatu, egiaztatu eta ikuskatzeari begira, datuak biltzeko, erregistratzeko eta gordetzeko sistema fidagarria ziurtatzea; bitarteko erakundearekin informazioa elektronikoki trukatzeko gaitasuna, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 69.8 artikulua eta XIV. eranskinaren arabera.

- Gastuen adierazpenak eta gastu horiek justifikatzeko informazioa eta dokumentazioa aurkeztea bitarteko erakundeak eskatzen duen xehetasuna, formatua eta aldizkakotasuna kontuan hartuta. Horren guztiaren barruan sartuko dira eragiketarekin lotuta dauden egikaritze-adierazleen lorpen-maila eta emaitzak.
- Finantzaketa bikoitza saihesteko, ez zaio inola ere eragiketa bererako finantzaketarik eskatuko berezko aurrekontuaz edo EGEF funtsaz bestelako beste erakunde, funts edo programa bati.
- Aitortutako gastuarekin zerikusia duten justifikazio-agiriak bost urtez kontserbatzea konfinantzatuta dagoen eragiketaren azken ordainketa egiten den urteko abenduaren 31tik zenbatzen hasita, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 821 artikulua araber.
- Bitarteko erakundearen eta estatuetakoa nahiz erkidegoetako beste erakunde eskudun batzuen esanetara egotea, hala nola EJren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa (KEB) edo Europar Batzordeko DG Regionen ikuskatzaileak, konfinantzatutako eragiketa egiaztatze, kontrolatzeko edo ikuskatzeko (Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 72., 74. eta 77. artikulua) Batez ere, egiaztatu ahal izateko konfinantzatutako eragiketaren xedea gauzatu dela, aitortutako gastua benetan egin dela eta aplikazioko legedia eta Programaren eskakizunak betetzen dituela.
- Eragiketa bukatzen denean, haren iraupenari buruzko eskakizunak betetzea, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 65. artikulua araber.
- Konfinantzatutako eragiketei dagokienez, Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren 49.3 artikulua aurrez ikusten duen zerrenda publikoan onuradun gisa sar dadin onartzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegiaren txertaketa kontuan hartu eta sustatzen direla zaintzea; hala, programazioaren aldi guztian sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa direla eta edozein diskriminazio saihesteko neurri egokiak hartuko dira. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeenganako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko testuategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua aplikatuko da.
- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutako eskakizunak betetzea.